



OSTEGUNA

2024/04/11
12. urtea, 1.954. zenbakia
107.6 fm
Ataria.eus
URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 95€

Apirilaren 22an jarraituko dute 'Ombuaren itzala' filmaren grabaketarekin

Pello Mari Otañori buruzko filmerako, aurrekontuaren %15 inguru falta zaie // **2**

Rojo eskiatzaileak emaitza bikainak lortu ditu bukatu berri den denboraldian // **7**



L.TERRADILLOS

«Emakume asko bizi da gaur egun txirrindularitza»

ARANTZAZU AZPIROZ TXIRRINDULARI OHIA

Punta-puntako txirrindularia izan zen Arantzazu Azpiroz berastegiarra eta gerora euskal selekzioko hautatzaile aritu zen lau urtez; larunbatean omenaldia egingo diote Donostia-Baiona-Donostia txirrindularitza martxan // **6**

JOSEBA ITURGINTZA

 Iturgintza  Aerotermia  Berokuntza  Klimatizazioa  Biomasa

600 561 782
josebasaralegi@gmail.com

**DASTATU
UZTA BERRIA**

ISASTEGI
~ SAGARDOEGIA ~

**OSTIRAL
EGUERDIETAN ERE
ZABALIK!**

TOLOSATIK AUTOBUSA

ALDABA TXIKI AUZOA-TOLOSA (GIPUZKOA) TEL: 943 65 29 64 ISASTEGI.COM

Aurrera darrai Pello Mari Otaño bertsolariaren bizialdia kontatuko duen 'Ombuaren itzala' filmaren auzolanak; apirila bukaeran Argentinara egingo du talde teknikoak, grabaketarekin jarraitzeko

Otaño laugarrengez Argentinara

Jon Miranda

azko ekainean *Ombuaren itzala* pelikularen pare bat sekuentzia Donostian filmatu ondoren, datorren apirilaren 22tik maiatzaren 3ra Argentinan jarraituko dute filmaren grabazioarekin. Handik bueltan, ekaina hasiera bitartean Euskal Herriko lokalizazioetan grabatuko dituzte Pello Mari Otañoren bizitzaren azken 20 urteak jasoko dituen pelikularen azkeneko eszenak. Patxi Bisquert ekoizle eta proiektuaren bultzatzaileak udan postprodukzio lanak egin eta irail erdirako eduki nahiko luke prest filma. «Zeharo pozik gaude zailena egitea lortu dugulako. Talde tekniko ederra osatu dugu eta aktoreak ere animoso daude, gogo handiarekin lanean jarraitzeko». *Ombuaren itzala* errealtate bihurtu dadin, ordea, 750.000 euroko aurrekontuaren %15 inguru falta dela nabarmendu du Bisquertek. «Baikorra naiz, ziur nago herritarrek azken ahalegina egingo dutela filma errealtate bihurtzeko».

Azken bultzada hori emateko prest agertu ziren asteartean Zizurkilgo Atxulondo kultur etxera gerturatu ziren herritarrak. Hernandorena kultur elkarteak deitu zituen aurkezpenera eta taldekide Joxin Azkuek gogoratu zuen, duela lau urte, 2020ko urrian, Plazaetxeberrin egin zutela pelikularen aurkezpenera, eta esan zuen lau urte hauetan, Bisquert gidari dela, proiektu azaldu eta filma egiteko auzolana martxan egon dela.

Ekoizleak gogoratu zuen Otañoren aldeko laugarren diru bilketa dela filmarena. «Bizitoki izan zuen Karidadeko Benta auzolanean eraiki zuten, adibidez; bigarrena, Victoriano Iraola editoreak antolatu zuen, sosikez zutela ikusita, aurrez saldu zituen *Zerbait* liburuaren aleak eta diru horrekin argitaratu zuten gero; hirugarren auzolana, 1898an Otaño familiarekin batera Argentinara joan zedin bultzatu zuen Donostiako Union Artesanak, eta hura ere, itsasontziko pasajeak erosteko diru bilketa herrikoia izan zen».



Hernandorena kultur elkarteak, Otañoren ondorengoak eta Patxi Bisquert ekoizlea Atxulondo kultur etxean. J.M.

Lau urteotan modu askotara bideratu dute *Ombuaren itzala* filmaren aldeko diru bilketa. Crowdfunding kanpaina ere jarri dute Verkami atarian eta helburua berri dutela jakinarazi du Bisquertek. 45.000 euroko kopurura iritsi dira martxoa amaieran. Bestalde, *Pellomariotano-aulolana.eus* webgunean jasoko dituzte interesatuek ekarpena egiteko moduen berri: kontu korronte batean, Bizum aplikazioaren bidez edota aurrez 10 euroan filma ikusteko bonu-sarrerara erosita egin daiteke ekarpena.

«Euren aletxoa jartzen duten guztiak izango dira pelikula honen ekoizleak», nabarmendu zuen astearteko aurkezpenean Bisquertek. Aipatu zuenez proiektuaren babesle bezala Euskal Herri osoko 120 udaletxe daude eta baita Ikastolen Elkarte eta hainbat kultur elkarte ere. «Ikastolen federakuntzarekin batera, besteak beste, eskola publikoek, Bertsozale Elkarteak, Pamiela argitaletxeak, Elkar fundazioak, Argentinako euskal etxeen federazioak, eta hemen Tolosaldean, Galtzaundi euskara taldeak eta Hernandorena kultur elkarteak babesten dute ekimena».



Bisquerten aldamenean Unai Mendizabal eta Anjel Mari Peñagarikano. J.M.



Iazko grabatutako sekuentzia batean Joseba Usabiaga eta Sara Cozar. ATARIA

Zizurkilgo ekoizlea kezkatuta dago euskal zinemagintzak azken 40 urteotan izan duen bilakaerarekin. Euskaraz egindako pelikulek geroz eta pantaila gutxiago dituela uste du Bisquertek: «Errealitate hori irauli egingo dugu guk. Amaituta dagoenean, ekoizle izan direnek filmaren kopia bat jasoko dute nahieran».

Filma egiteko aurrekontuaren %15 inguruko falta dela nabarmendu du Bisquertek

erabili dezaten. Beraz, kalkulatzeko 400 pantaila izango dituela *Ombuaren itzala* filmak. Otañoren oroimena herri-gintzaren esku utziko dute, honenbestez.

OTAÑORI GOROZARRE

Pertsonaia emankor eta prolifico gisa aurkeztu zuen Bisquertek Otaño, eta neurriko film bat eskaini nahi diotela esan zuen. «Gure herrikideak ongi irabazia du egiten ari garen guztia». Filmean herritarrek ere parte hartu ahal izango dute aktore estraz bezala. Jende asko beharko den bizpahiru eszena aurreikusten ditu Bisquertek: 1893an Donostian *Gernikako Arbola* abestu ondoren poliziak bortizki errepresatu zuen manifestaziorako, Otañori Pasaiaiko portuan egin zioten agurrerako, eta Karidadeko Bentako giroa irudikatzeke –Ziraukin, Nafarroan, grabatuko dute azken eszena hori–.

Aktore bezala parte hartuko du pelikulan Anjel Mari Peñagarikano bertsolariak, –Pello Mariaren osaba eta Plazidaren aita zen Joxe Bernardoren papera jokatu du–. Astearteko aurkezpenean soldaduska garaian Otañoren bertsuak gogoratuz zenbat negar egiten zuen gogoratu zuen bertsolari anoetarrak. Alboan izan zuen Otañoren jaiotetxe izan zen Errekalde baseritik hurbil, Aduñabarren jaiotako Unai Mendizabal zizurkildarra. Deia luzatu zien bildutakoei, «behegoz herriaren profeta izan dadin», Otañoren bizitzari buruzko filma gauzatu ahal izateko ekarpena egin dezaten.

Belauntzako festak irudikatzeko marrazki lehiaketa antolatu dute

Marrazki irabazlea herriko festetako programan aterako da; lanak entregatzeko azken eguna maiatzaren 20a izango da eta sari banaketa ekainaren 24an egingo dute

Leyre Carrasco Belauntza

Marrazki lehiaketa antolatu du Belauntzako Udalak, 4 eta 16 urte bitarteko herriko haur zein gazteentzat. Gaia *Belauntzako festak* izango da, honela, lehiaketako irabazlearen marrazkia aurtengo festetako programan ateratzeko aukera izango du.

LEHEN ALDIZ

Horrelako ekimena antolatzen duten lehen aldia dute Belauntzan, eta herritarren parte hartzea bultzatzeko helburuarekin antolatu dutela esan dute.



Belauntzako ikuspegia. ATARIA

Lanak entregatzeko azken eguna maiatzaren 20a izango da eta parte hartzaileek gutunazal batean aurkeztu beharko dituzte lanak udaletxean. Bertan, euren marrazkia ez ezik, izena, abizenak eta adina idatzi beharko dituzte aparteko paper batean.

Parte hartzaile bakoitzak marrazki bana aurkezteko aukera izango du.

Sari banaketa ekainaren 24an ospatuko da eta bertan jakingo da noren marrazkia izango den festetako programa osatzen duena.

Aurtengo Elkartasun Kilometroa, Saharari laguntzeko

Uzturpe Ikastolako ikasleek elkartasun ekimena egingo dute gaur, beste urte batez; biltzen duten dirua Tolosaldea Sahararekin elkartera bideratuko dute

Leyre Carrasco Ibarra

Aurten ere Uzturpe Ikastolak Elkartasun Kilometroa ekimena egingo du. Gaur izango da, 15:00etatik aurrera, eta biltzen duten dirua Tolosaldea Sahararekin elkartera bideratuko dute. Izan ere, bigarren hiruhileko honetan, LH 6. mailako ikasleak *ongizate* hitzaren inguruan hausnartu dute. «Esanahia ulertu ostean, herrialde garatuen eta garatzeko bidean dauden herrialdeen arteko ezberdintasunak aztertzeari ekin diogu, Euskal Herria eta Sahara gure kasuan. Bi herrialde hauetako bizi baldintzak oinarri izanik, hauen

inguruko informazioa bildu dugu, horretarako, gonbidatu bereziak izan ditugularik; alkattea, ikastolako zuzendaria, ikasle baten ama eta Tolosaldea Sahararekin elkarteko kide bat», azaldu dute. Hain justu, Elkartasun Kilometroarekin bukatuko dute proiektu hori.

Gaur 15:00etatik aurrera hortaz, ikasleak plazaren inguruan korrika ariko dira. Horretarako, babesle taulak eman dituzte aurrez, etxeetara, eta babesle horiek eman duten diruaren araberrako bueltak emango dituzte korrika. Norbaitek diru ekarpen berezia egin nahiko balu 943 53 66 09 zenbakira deitu behar du.

Nerabeen buru osasunaren inguruko hitzaldia, gaur

LIZARTZA // Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria sailaren Treba programa iritsiko da gaur, Lizartzara. Herri eskolako Bizikidetza batzordearekin elkarlanean, nerabeen buru osasunaren inguruko hitzaldia antolatu dute eta 16:15ean izango da, udal aretoan. Estibaliz Ansotegi psikologoak gidatuko du saioa.

‘Bizkarsoro’ filma proiektatuko dute, larunbatean

LIZARTZA // Josu Martinezek zuzendutako *Bizkarsoro* filma ikusteko aukera izango da larunbatean, 19:30ean, Lizartzako udal aretoan. Euskal Herriko herri txikietak herriarren lekukotzetan eta idatzitako testuetan oinarritutako fikziozko bost istorioetan jaso du euskara eta euskaldunon historia Martinezek.



BELAUNTZAKO IRUDI BERRIA

Belauntzako Udaleko irudia berritu dute. Inguruko herri askotan euren irudia aldatzen ari direla kontatu du Iñaki Telleria Belauntzako alkateak, eta beraiek ere pauso hori ematea erabaki dutela. «Belauntza nolakoa den adierazi nahi genuen, eta mendi eta erreka tarte horretan Belauntza bertan dagoela irudikatu dugu. Belauntzako helbide guztiak hiriburu dira, eta gure herrigunea hiriburua ere bada. Azkenean, gure herriko izaeraren isla izan da». BELAUNTZAKO UDALA

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943 65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:00k arte hartzen ditugu



**Mikel
Uribe-Etxebarria
Goikoetxea**

(Maite Almandoz Egañaren alarguna)
Atzo hil zen 82 urterekin.

- Goian bego -

Seme-alabak: Koldo eta Nerea Iturriria, Elixabete eta Garikoitz Aginagalde, Nerea eta Karlos Moran; bilobak: Leire, Eñaut, Nahia, Unai, Ane; anai-arrebak: Maite eta Patxi Murua (†), Marilolo eta Juan M^a Cuadrado; ezkon anai-arrebak: Karmele (†); ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Familiak, otoitz bat eskatzen dizue bere arimaren alde eta GAUR OSTEGUNA arratsaldeko BOST ETA ERDIETAN SAN ANDRES Parroki Elizan egingo den hileta-elizkizunera joateko gonbita egiten dizue. Eskerrik asko aldeztu aurretik.

Oharra: Gorpua Beasaingo
GOIERRI BEILATOKIAN
egongo da 10:00-13:00 artean.

ORMAIZTEGIa, 2024ko apirilaren 11n.

Idiakez jauregia, lau mendeko historia oparoa

Uzturre, Santa Maria parrokia, Zerkausia eta Naparzubiarekin batera Idiakez jauregia da Tolosan gehien erretratatzeko den eraikinetako bat

Joxemi Saizar

XVII. mende hasieran eraiki zuten Idiakez jauregia eta beraz, lau mendeko historia luzea du. Azken mendean Casino elkartearen egoitza izan da eta hala da gaur egun ere.

Alonso Idiakez Iurramendi (Anoeta 1497-Torgau, Sajonia 1547), Juan Idiakez eta Catalina Iurramendiren semea, Tolosak eman duen pertsonai garrantzitsuenetakoa da. Militarra, Espainiako Koroaren zerbitzura egon zen 1520tik hil arte, Karlos V. enperadorearen idazkaria izan zen, Luis Vives humanistaren laguna eta Europako finantza buruekin harremanak izan zituen. Grazia Olazabal donostiarrarekin ezkondu zen eta Donostiako Kale Nagusian zuen jauregia. San Telmo komentua sortu zuen, gaur egungo museo-a, eta bertan ikus daiteke senar-emazteen hilobia.

Angel Martin Ramosek *La construcción de Tolosa* liburuan azaltzen duenez, Idiakezek lur eremu zabala erosi zuen Santa Maria parrokia, errota eta Oria ibaiaren artean, etxeak eraikitze asmoz, Luis de Vega enperadorearen arkitektoaren proiektuaren arabera. Etxea altxatzen hasi zen eta Karlos V.a

1539an izan zen bertan. Orduan jarri zioten Enperadore (Agintari) kaleari izen hori. Hala ere eraikinaren proiektu hori ez zen burutu eta eremu horretan bere zimenduen arrastoak ikus daitezke gaur egun. Zati batean Aranburu jauregia eraiki zuten.

ERREGE ETA NOBLEAK

Lur horiekin batera Antxietaren etxea ere erosi zuen Alonso Idiakezek, harresiaren gainean eta Naparzubiarekin ondoan. Hil aurretik, Ameriketara abertatu zen bere anaia Lope Idiakezi eman zion etxe hori eta honek bultzatu zuen Idiakez jauregiaren eraikuntza. 1605etik 1619ra eraiki zuten Francisco Landa eta Luis Zaldia maisu harginek. Martin Idiakezek, Loperen bilobak, amaitu zituen lanak.


Jauregia harrizkoa da alde batean, adreiluzkoa bestean, eta hasierako armarrak mantentzen du, Idiakez familiarena. Oria ibaira ematen duen fatxada garai bateko harresiaren gainean dago eraikia, Nafarroako atearen ondoan. Sute batek eraitsi zuen jauregia 1749an eta Bernardo Zabala Iurreamendik berritu zuen, elementu barrokoak erantsiz. 1775ean Tolosako alkatea izan zen Felix Maria Samaniego Zabala alegialari ospetsua ber-

tan bizitu zen, 1828an Fernando VII. eta Cristina erregeak egun batzuk pasatu zituzten eta 1845ean Isabel II.a erregeak egin zuen lo, beste pertsonaia ezagunen artean.

GOI MAILAKOEN ELKARGUNE

Tolosako Casino elkarteak 1885eko ekainaren 1ean sortu zen, udaletxeko beheko solairuan. Bere helburua zen bazkideek elkartzeko leku atsegina izatea, erosotasun guztiekin (egunkari eta liburuen irakurketa eta bestelako denbora-pasak). Hitz italiar honen jatorrizko esanahia landetxea bada ere, betidanik nobleen aisialdirako eta jokorako eraikina izendatzeko erabili da. 1903an udalak espazio horren beharra izan zuen eta beste egoitza baten bila hasi ziren bazkideak. Idiakez jauregia erosi zioten 55.000 pezetatan Jose M. Gortazarri eta obra batzuk egin ondoren, 1906an ireki zuten Tolosako Casino elkarteak. Hauek dira lehen zuzendaritza osatu zutenak: Juan Jose Munita lehendakaria, Cirilo Rekondo lehendakariordea eta Ramon Bandres idazkaria.

Lehen hamarkada haietako giroa eta jarduna ezin da konparatu gaur egun elkarte gastronomikoekin. Goi maila-



Idiakez jauregiaren grabatua. MANUEL DOMENEH

ko jendea elkartzeko tokiak zen: alkateak, abokatuak, medikuak, enpresariak, merkataria... Mahai jokoak, liburutegia, tertuliak, kontzertuak, dantzaldiak... ziren jarduerak nagusiak. Estatu-ko eta atzerriko egunkariak eta aldizkariak jasotzen zituzten bertan. Jose Felix del Hoyo Simonek Casinoren mendeurrenean idatzi zuen liburuan jasotzen ditu bazkideen arteko ezta-

baidak, gehienak foruen aldekoak izanik, abertzaleen egunkariak jasotzearen kontra azaldu zirenean.

GERRAREN ETENA

Musikari ugari izan dira Casino-ko bazkide: Felipe Gorriti, Eduardo eta Ignacio Mokoroa, Feliciano Beobide, Justo Saizar, Javier Bello Portu, Juan Azaldegi... Beraien ekimenez kontzer-

FRESADOREAK eta TORNULARIAK

Lehen mailako ofizialak behar ditugu, gutxienez 5 urteko esperientziarekin, fresadore eta tornulari lanak egiteko.

Interesatuak bere CV ondorengo helbideetako batera bidali beharko dute **2024/04/21 baino lehen:**

Talleres Mitxelena, Koop.
Eziago poligonoa 21 · 20120 Hernani
info@talleresmitxelena.eus

mitxelena
NEURRI HANDIKO MEKANIZAZIOA | LARGE-SCALE CUSTOM MACHINING



zozketa



Atarikideentzat sarrera bikoitza dugu

Golden Apple Quartet
agur bira

Apirilak 14, igandea, 19:30ean Villabonako Gurea antzokian

Zozketan parte hartzeko osteguneko 11:00ak arte **943 65 56 95** edo **Ataria.eus**



Naparzubia 1899. urtean eta garai bateko Plaza Zaharra, Idiakez atzean duela. 'ARGAZKIAK TOLOSA (1842-1900)' ETA 'ARGAZKIAK TOLOSA (1900-1920)' LIBURUETATIK HARTUTAKO IRUDIAK (LEHEN IRUDIA LEON CABALLEROK ATERTAKO DA)



tu eta hitzaldi ugari entzun dituzte Idiakez jauregiko hormek garai desberdinetan zehar.

Beste ekitaldi askoren artean, haur behartsu eta gaixoentzako udalekuak antolatu zituzten bazkideek 1917tik 1925ra Berastegin, Orion eta Hondarribian. Errepublikara garaiko krisiak eta

Jauregi honen aurretik Alonso Idiakez beste bat eraikitzen saiatu zen metro gutxira

Lehen hamarkadetan goi mailako jendea elkartzeko tokia zen Casino, tertuliak eta dantzaldiak eginez

60ko hamarkadan Casino 500 bazkide izatera iritsi zen, ekitaldi ugari antolatuz eta jatetxea

gizarte mailako gatazkek isla izan zuten bertan. 1936ko gerra iritsi zenean bazkide askok alde egin behar izan zuten, batzuk frontera, beste batzuk erbestera. Gerrak iraun zuen urteetan asko jaitsi zen bertako jarduera eta elkarteak desagertzearekin batera.

Gerra ondorengo urteetan pixkanaka berrindartu egin zen, 1943an berrehun bazkidera iritsiz eta taberna irekiz, atezainaren ardurapean. 1954an urrezko ezteiak ospatu zituzten bazkaria eta dantzaldiarekin, Miserikordiarako 3.000 pezeta jasoz. Aurreko mendeko 60ko hamarkadan gorakada handia ezagutu zuen Casinok. 1964an 28 hitzaldi eman ziren bertan, erakusketak, kontzertuak, lehiaketak eta txapelketak ugarirekin batera. Txirrindularitza probak antolatzeko taldea ere sortu zuten bertan, Jose Mari Anza buru zela, eta proba ugari antolatu zituz-

ten 1962tik 1966ra, tartean Espainiako Itzuliko etapa baten amaiera eta irteera 1963an. Monumentu historiko-artistiko izendatu zuten orduan.

JATETXEAREN ALDE

Hurrengo urtean 500 bazkide izatera iritsi ziren, elkarte gastronomikoaren itxura hartuz erretegia jarri zutenean. Meson Idiakez jatetxea ireki zen beheko solairuan, bazkide batzuk bultzatuta, Nestor Basterretxea eskulturagilearen dekorazioarekin. Inaugurazioan Manuel Fraga Iribarne Informazio eta Turismo ministroa izan zen, 1967ko sanjoanetan. Jauregiari bizitza eman eta kultur ekitaldiak finantzatzeko zen jatetxearen helburua, baina bere kudeaketan sukaldari asko (tartean gaur egun ospetsu diren Subijana eta Argiñano) pasatu ondoren, ez zuen arrakastarik izan eta 1975ean itxi zuten, instalakuntzak elkarterako berreskuratu.

Inauteriek garrantzi handia izan dute Casinon bere sorreratik, Tolosako gainontzeko elkarreetan bezala. 1907an egin ziren



Idiakeztarren armaria. IÑAKILO PETEGI

lehen dantzaldiak, urte askotan errepikatuko zirenak. Danborradak, karrozak eta konpartsak ere atera izan dira bertatik eta 1946an Txapelandi txaranga sortu zuten eta jarraitzen du Inauterietan kalera ateratzen.

GARAI BERRI, EKIMEN BERRI

Mikologiak presentzia handia izan du elkartearen historian. 1963an antolatu zuen lehen perretxiko lehiaketa eta hurrengo urteetan jarraitu zuen Tolosako Ekinbide Etxearen (TEE) laguntzarekin, haurren, gastronomia eta argazki lehiaketak ere eratuz Nazioarteko Mikologia Astearen barruan. 1977an utzi zuen Casinok antolaketa eta TEEK jarraitu zuen Tolosako elkartearen laguntzarekin, 1980an desagertu arte.

Azken urteotan Casino garai berrietara egokitu da, bazkide gazte ugari erakarritik, eta horien bultzadaz ekimen berriak antolatzen ditu. Garai batekoa berreskuratuz, Mikologika jardunaldiak (lehiaketak, kontzertuak, tailerrak) antolatu ditu arrakasta handiz, hamabi edizio burutuz jada orain arte. Horrekin batera azken sei urteetan Txotx Solidarioa egin dute Tolosaldeko sagardotegien laguntzarekin. Gonbidatu bereziak izaten dira bertan eta GKE baten-tzako diru laguntza lortzea da helburua.

Kulturaren beste alor batzuk ere jorratu ditu Casinok. Bazkide batzuk sortutako antzerki taldea izan zen garai batean. Titiirijai txotxongilo jaialdiko emanaldiak eta Abesbatza Lehiaketako ekitaldiak izan dira bertan.

Gaur egun Gipuzkoako Abesbatza Federazioak eta Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteak Tolosako Casinon dute egoitza. Historia luze eta oparoa dute idiakeztarren duela lau mende altxatutako hormek.

Indarkeria matxistari aurre egiteko hitzaldi irekia, bihar

Osteopataren kasuari eta Tolosako Udala biktimen erreparazioa bermatzeko egiten ari den esku-hartzeari lotuta dago hitzaldia

Erredakzioa

Yo si te creo... siempre que no co- nozca al agresor izenburupean indarkeria matxista hizpide duen hitzaldi irekia antolatu du Tolosako Udalak biharko, hain zuzen, osteopataren kasuari eta udala biktimen erreparazioarako eskubidea bermatzeko egiten ari den esku-hartzeari lotuta.

Hitzaldia herritar ororentzat irekia izango da eta 19:00etan hasiko da, udaletxeko pleno aretoan.

Norma Vazquez psikologo feministak gidatuta, indarkeria

matxistari aurre egiteko gizarte- an sortzen diren kontraesanen inguruan gogoeta kolektiboa bultzatu eta zabaltzea izango du helburu.

Horrela, hitzaldian bertan, el- karrizketarako espazioa eskaini- ko dela esan du udalak eta indar- keria matxistaren biktimekiko zein indarkeria mota hori eragi- ten duenekiko pertzepzioen eta jarreraren inguruan hausnarketa egitera gonbidatuko dituzte par- te-hartzaileak, bereziki bikti- mak, edota bere ingurukoak, erasotzailea ezagutzen duten egoeren inguruan.

Bertako Haragien Azoka, maiatzaren 4an

Erredakzioa

Maiatza iristearekin batera ospa- tu ohi da Tolosako azoka bere- zien egutegiko bigarren hitzor- dua: haragia protagonista duen Haragi, alegia. Maiatzaren 2tik 5era ospatuko da aurten, eta ha- ragi mota ugari ezagutzeko eta dastatzeko aukera izango da.

Aurtengo xehetasunak aurre- rago azalduko dituzten arren, bada berrikuntza nagusi bat: Bertako Haragien eta Ekoizleen Azoka egingo dute aurten Trian- guloan, maiatzaren 4an, larun- batez. Inguruko ekoizleen pro- duktuak ezagutzeko azoka izan- go da, besteak beste, behiki, zaldiki, txerriki, oilaskoki edota ahatekiak. Horrez gain, Zumar- ditzikian festa gunea ere izango da, eta *food truck* postuak izango dira, haragi mota ezberdinekin osatutako jakiak dastatu ahal izateko.

Hain zuzen, bi espazio horie- tan postuak jartzeko eskaerak

egiteko epea zabalik da jada, da- torren apirilaren 21a bitarte. Zu- marditzikian *food truck*-a jarri edota Bertako Haragien Azokan parte hartu nahi dutenek aurrez eskaera egin beharko dute Uda- ten edota telematikoki, udal erregistroaren bitartez. Informa- zio gehigarria, bete beharreko baldintzak eta eskaera orriak es- kuragarri daude udal webgunean.



Iaz Zumarditzikian hartutako irudia.L.C.

Unai Ugartemendia Berastegi

Punta-puntako txirrindularia izan zen hainbat urtetan Arantzazu Azpiroz (Berastegi, 1981). Besteak beste, Espainiako txapeldun izan zen errepidean 2002an. Txirrindularitza utzi ondoren, euskal selekzioko hautatzaile moduan ere aritu zen lau urtez. Gaur egun, oraindik ere bizikletaren gainean ibiltzen jarraitzen du.

Txirrindularitzazale amorratua da Azpiroz, eta benetan gustura aritzen da hainbat urtetan ogibide izan zuen kirolaz hitz egiten. Bere kirol ibilbide arrakastatsua gogoratzeko asmoarekin, larunbatean izango den Donostia-Baiona-Donostia txirrindularitza martxan omenaldia egingo diote bertako antolatzaileek.

Gogoan duzu bizikleta baten gainean jarri zinen lehenaldi hura?

Ez naiz gogoratzeko, baina pentsatzen dut oso umetan izango zela. Aitari beti gustatu izan zaio txirrindularitza, baina familian bestela ez dugu zaletasun berezirik ikusi. Indurainen garaiak etorri ziren gerora, eta zeharo iltzatura gelditu nintzen. Pentsa nola amaitu nuen! Indurainek jende asko erakarri zuen, bai txirrindulari bezala, eta baita pertsona bezala ere.

Tolosan egin zenituen lehen pausoak txirrindularitzan.

Bai. Hamalau urterekin hasi nintzen, eta hasieran urduritasun pixka batekin ibiltzen nintzen. Orduan, askotan, mutilekin parte hartzen genuen. Pistan ere batera hasi nintzen entrenatzen, eta bizikletaren teknika hobetzeko balio izan zidan. Ni hasi nintzenean, gogoratzeko Ainhoa eta Josune Artolazabal ahizpak zirela erreferente niretzat. Nafarroan jokatu behar zen lasterketa batean gogoan dut, lasterketa bertan behera gelditu, eta nola haien aitak etxeraino bizikletan itzuli behar zutela esan ziela. Gu beste maila batean geunden!

Gizonezkoen artean lehiatzen ibili zineten urte askotan. Nola sentipena zen hura?

Burbuila batean bezala geunden. Ezberdintasun handiak ikusten genituen orduan, eta haiekin lehiatzen genituen lasterketetan hainbat gauza entzun behar izaten genituen guraso askoren ahotik, esaterako: «Neska batek irabazi al dizu? Nola utzi diozu irabazten?». Gero, askotan, etaparen batean alde egiten saiatuz gero, denak atzetik izaten genituen. Ez zen gauza orokorra izaten, baina esames asko



«Ez dakit zer egingo nukeen bizikleta kenduko balidate»

ARANTZAZU AZPIROZ TXIRRINDULARI OHIA

Goi mailako txirrindularitzan aritu ostean, euskal selekzioko hautatzaile izan zen berastegiarra; larunbatean, omenaldia jasoko du bere kirol ibilbidearengatik

entzuten genituen garai haietan.

Profesionalak jautsi egiteko aukera nondik etorri zen? Sorpresa handia izan zen hura. 2001ean izan zen. Ainhoa Artolazabal nuen entrenatzaile orduan, eta berak eman zidan albiste. San Marinoko Alfa Lum taldeak nirekin kontatu nahi zuela aipatu zidan. Nik ez nuen sinisten! Orduan, Joane Somarribaren bidez, Deiak sartu nahi zuen taldean. Oso talde ona osatu zuten, baina zoritxarrez urtebete besterik ez zuen iraun talde hark. Orduan, Italian talde asko zeuden, baina oso egoera ezegonkorra izaten zen talde haietan. Inork ez zuen etorkizun laburrak harago pentsatzen. Arazo asko izaten ziren talde haietan. Nik zorionez ez nuen arazorik izan.

Profesionalak jautsi egiteko aukera nondik etorri zen? Hurrengo urtean, italiar-euskaldun talde berri bat sortu ondoren, hara joan zinen.

Joane Somarribaren bidez, Deiak sartu nahi zuen taldean. Oso talde ona osatu zuten, baina zoritxarrez urtebete besterik ez zuen iraun talde hark. Orduan, Italian talde asko zeuden, baina oso egoera ezegonkorra izaten zen talde haietan. Inork ez zuen etorkizun laburrak harago pentsatzen. Arazo asko izaten ziren talde haietan. Nik zorionez ez nuen arazorik izan.

Profesionalak jautsi egiteko aukera nondik etorri zen? Hurrengo urtean, italiar-euskaldun talde berri bat sortu ondoren, hara joan zinen.

zendariak jada nabaritu zuen aurreko urtearekin alderatuta jauzia eman nuela. Oso denboraldi polita atera zitzaidan, eta Espainiako Txapelketa irabazteaz gain, Emakumeen Biran ere oso indartsu sentitu nintzen, nahiz eta taldeko liderrentzat lan egin behar izan nuen. Horrez gain, Zolderreko (Belgika) mundialetan ihesaldi gehienetan egoteko aukera izan nuen. Agian, eta, nahiz eta garaipen handi batzuk lortu, helmugara iritsi eta Joane Somarribak hirugarren postuan amaitu zuela ohartu nintzen une harekin gelditzen naiz. Hotelara iritsi eta Joane esan zidan: «Aran, domina hau zeurea ere bada!». Betirako gelditu zaizkit hitz haiek.

Dopinaren mamua ere oso gertutik bizi izan zen 2007an.

Bai. Ruta de Francia izena hartu zuen lasterketan gertatu zitzaidan bizitzeko. Etapa batean bigarren iritsi nintzen eta ezin izan nuen irabazi. Oso ondo sentitu nuen nire burua egun haietan, baina garaipenik ezin izan nuen lortu. Hura amaitu eta gutxira, etapa irabazi zuen txirrindulariak positibo eman zuela esan zidan taldeko zuzendariak. Amorrutua handia sentitu nuen unean

bertan. Etapa hartako podiumean izan nintzen, baina ez merezi nuen lekuan.

Hogeita zazpi urterekin erretiratzea erabaki zenuen. Nola-tan?

Bai. Argi neukan oso ondo sentitzen nintzen garaian utzi nahi nuela. Ez nuen beharaldian utzi nahi. Zortez, Olinpiar Jokoak kenduta, munduko lasterketarik onenak korrituta nengoen. Buelta asko eman nizekion erabakiari. Jarraitzeko aukera eman zidaten, baina jada erabakia hartuta

«Hautatzaile izateak nortasuna eskatzen du, eta buruhauste handiak ematen ditu»

neukan. Beste gauza batzuk egiteko denbora nahi nuen. Halere, ez diot inoiz bizikletan ibiltzeari utzi, eta kenduko balidate ez dakit zer egingo nukeen.

Erretiroa hartu eta gutxira, euskal selekzioko hautatzaile izendatu zintuzten.

Denbora behar nuenaren aitzakian utzi nuen txirrindularitza, baina okerrera joan nintzen [barrezka]. Halere, deitu zidatenean ez nuen asko pentsatu. Hiru mailak eraman behar nituen, eta asteburuero lasterketetara joaten amaitu nuen. Buruhauste handiak ematen ditu hautatzaile postuak. Lau urte izan ziren, eta politak izan arren, oso gogorrak izan ziren. Ikaragarri ikasi nuen. Nortasun handia izatea eskatzen du hautatzaile postuak. Oso ezberdina da txirrindulari edo hautatzaile izatea.

Gaur egun nola ikusten duzu emakumeen txirrindularitza?

Askok aldatu da. Telebista serio sartu dela ematen du, eta nahiz eta oraindik aldeak badauden gizonetakoekin alderatuta, dezente berdindu da. Taldeen kopurua ere asko igo da, eta gizonetakoekin talde gehienek ere badute emakumeen taldea. Lehen ez zegoen halakorik! Maila asko igo da, eta gaur egun emakume asko bizi da txirrindularitzatik.

Igandean, Donostia-Baiona-Donostia txirrindulari martxan merezitako omenaldia jasoko duzu antolatzaileen aldetik. Zer sentitzen da horrelakoetan?

Deitu nindutenean, besteren bat aurkitzen bazuten harekin egiteko esan nien [barrezka]. Egia esan, ilusio handia egiten du horrelako martxa batean baten bat nirekin gogoratzeak. Marino Lejarretarekin batera izango naiz, eta egun polita izango da. Emakumeekin gogoratzeak ere poz handia eman zidan.

Imanol Rojo: «Orain bi eta hiru urteko mailara itzuli naiz»

Denboraldi berezia izan da eskiatzaile tolosarrarentzat: Espainiako selekzioaren laguntzarik gabe moldatu behar izan du eta espero gabeko emaitzak lortu ditu

Imanol Garcia Landa Tolosa

Imanol Rojo iraupen eskiatzailak bukatu du denboraldia. Balantze «oso positiboa» egin du tolosarrak: «Espainiako selekzioetik kanpo gelditu nintzenen, dena hasieratik antolatu eta egitea tokatu zitzaidan, eta ez nuen espero hain ondo aterako zenik. Emaitza txukunak lortu ditugu denboraldian zehar, eta pozik nago. Ez nuen espero nik dena planifikatuta horrelako emaitzak lortzea». «Orain bi eta hiru urteko mailara itzuli naiz, eta hori izan da niretzako onena», gaineratu du.

Emaitza zehatzei begiratu hauek nabarmendu ditu: Europako Kopan hiru aldiz lehen hamar postuetan sartu da, Tour de Skiren azken etapan 19. postuan amaitu du eta sailkapen orokorrean 35. bukatu du, orain arteko bere bigarren emaitza onena izan delarik. Espainiako Txapelketan ere urrezko bi domina

lortu zituen. «Ez zen nire helburuetako bat, baina konfirmatu nuen Espainiako onena naizela distantzia erdi-luzeetan. Klasiakoan eta skating modalitatean irabazi nuen, eta alde handiaren. Nahiz eta federazioak ez ikusi, hor gaudela erakutsi nuen. Federazioak gazteekin egin zuen apustua, eta ikusi da oraindik gogotsu nabilela eta goi mailan».

Izan ere, aurreko denboraldia oso zaila izan zen Rojorentzat. Gaixotasun bat izan zuen eta lehiatu ahal izan zuenean bere sasoi onenetik urrun aritu zen. «Esan daiteke aurreko urteko arantza kendu dudala. Lehengo urteko errekupeazioa oso luzea izan zen, eta ia ekainera arte ez nintzen guztiz osatu. Ez nuen arnasa ondo hartzen, eta pentsatzen nuen oso zaila izango zela aurreko urteetan nuen mailara iristea. Baina lortu dut eta poztu naiz, bai nire osasunaren aldetik, eta baita eskiatzaile



Imanol Rojo, aurtengo Espainiako Txapelketan. JULEN JUARISTI

bezala ere». Aukera ezberdinak begiratu zituen bere kirol ibilbidearekin jarraitzeko bukatu berri den denboraldian. «Norwegian taldea duten lagun batzuk ditut eta hasieratik esan zidaten beraien taldean sartuko nintzela, Madshus taldean, hain justu», esan du Rojok. «Talde hori lasterketa luzeetan parte hartzeko baliatu dut, baina Munduko Kopan ere lehiatu naiz, eta horretarako beste laguntza batzuk izan ditut. Hori nik antolatu behar izan dut eta horretarako *Imanoleta* egitasmoa jarri genuen martxan».

Aurrekontu bat zuen denboraldirako eta teknikariak ere ordaindu behar direla azaldu du kirolariak. «Denbora asko da etxetik kanpo, oso gastu handia da. Horregatik nire gurasoei galdetu nien ea nirekin etorri ahal ziren, furgonetarekin. Furgoneta eskiz eta materialez bete genuen, eta Europan zehar joan gara lastertzen eta munduko onenekin borrokatzen».

Orain atsedean hartu eta hurrengo denboraldia prestatzea tokatzen dela dio. Datorren denboraldian, otsaila bukaeran eta martxoaren hasieran, Munduko Txapelketa izango da Norwegian, eta bertan parte hartu nahi du. «Dagoeneko sailkatuta nago, eta Norwegian Munduko txapelketa bat jokatzek ilusio asko egiten dit», esan du Imanol Rojok.

Trialsin txapelketa berriro Usabal parkean

I. Garcia Landa Tolosa

Gipuzkoako Trialsin Txapelketa izango da jokoan igande honetan, Tolosako Usabal kirol parkean. Tolosako Bideak Bike Eskolak antolatzen du eta bertako arduraduna da Irene Caminos: «Aspaldi ez genuela txapelketa bat antolatzen. Lehen urtero Gipuzkoako Txapelketa antolatzen genuen, baina COVID-19a iritsi zen eta gero Usabal atzeko obrak hasi ziren. 2020an egin zen azken Gipuzkoako Txapelketa, eta gogoz berriro ere bueltatzeko».

10:00etan hasiko da txapelketa eta 14:00ak ingurura arte irautea espero da. Lehenengo txikien kategoriakoak hasiko dira, eta gero kadeteak, juniorrak eta elite mailakoak lehiatuko dira. Txikien kategorian bost urtetik hasi eta infantil arte izaten dira. Neska gutxiago izan ohi dira parte hartzen, eta hauek ka-

tegoriaren batean podiuma osatzeko bezainbeste parte hartzaile badaude, neska eta mutilen kategoria sortzen dute antolatzaileek. Bestela, kategoria berean lehiatzen dira neskak zein mutilak. «Beti izan da zaila Gipuzkoako triansinean neska asko aritzea, pixkana bagoaz aurrera, baina zaila izaten da kategoria bat ateratzea. Gutxi gara eta zaila izaten da denak maila berean egotea, beraz, mutilen kontra ariko gara denak. Nire kasuan aspaldidanik ohituta nago Gipuzkoako eta Euskadiko Txapelketetan mutilekin lehiatzen eta horrelaxe egin beharko dugu berriz ere», esan du.

Caminos antolatzaile moduan ari da, baina parte hartuko du ere txapelketan, elite mailan. «Guk antolatu dugu, eta eskolako haurrekin egingo naiz, eta gero lehiatzen ere izango naiz. Beraz, denetatik pixka bat egi-

ten ariko naiz», esan du. «Antolatzea askoz zailagoa da. Bizikletan ia egunero ari naiz, eta ez da hain zaila. Antolatzea beste mundu bat da, baina gogoz gaudela iristeko».

Elite mailakoan ez dela faborittoa izango dio tolosarrak: «Onagoak badaude; Jon Areitio hor dabil berriro ere lehian eta espero dugu etortzea, eta etortzen bada bera izango da faborittoa». Caminosek berarekin askotan entrenatu izan du eta anaiatzat hartzen du: «Hasi nintzen momentutik beti lagundu dit. Munduko Kopetara batera joaten gara».

Bideak Bike Eskolatik zortzi parte hartzaile inguru izango dira, eta orotara 30-40 parte hartzaile izango direla espero dute. Bestalde, antolakuntzatik deia egin dute txapelketa ikustera joatera, «ikuskizuna» ziurtatuta izango delako.



Irene Caminos, urtarrean, Usabal parke berrituan. IGL.



OSTEGUNA, 2024KO APIRILAK 11
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezera arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezket, Anoeta, Asteasu, Balarraín,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta,
Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



OSTEGUNA 11

AGENDA

Deialdiak

Ibarra. Uzturpe Ikastolaren XIII. Elkar-tasun Kilometroa, plazan, 15:30ean.

Lizartza. Osasun mentala eta nerabeak hitzaldia Estibaliz Ansotegiren eskutik, 16:15ean, udal aretoan.

Irura. Zoru pelbikoa ezagutzeko, zaintzeko eta erreperatzen laguntzeko tailerra, Sara Majarenas Ibarretaren eskutik, 17:00etan udaletxeko ganbaran.

Lizartza. Gure genealogia feministak. Mugimendu feministaren historia Emagin elkartearen eskutik, 18:00etan udal aretoan.

Ondoren, Zaintza Ehuntzen taldearen aurkezpena egingo dute.

Zizurkil. Loatzo musika eskolaren tronpeta eta tronboi audizioa, 18:30ean, Atxulondo kultur etxean.

Tolosa. V. Gastronomika Jardunal-diak Berazubi auzoan: 19:00etan To-losako V. Patata Tortilla Lehiaketa eta pintxo potea.

Albiztur. Salubita, Gipuzkoako itur-bururik handienaren sekretuak age-rian hitzaldia 19:00etan udaletxean, Inma Mugerzaren eskutik.

Elduain. Festak antolatze bilerak 20:00etan, udaletxean.

28 KANALA

10:00. Ate ondokoak 2x04.

13:30/21:30. Tolosaldea Gertutik.

16:00. Euskal Zirkul Elkarteen kabareta.

17:00. Parean pareko.

22:00. Eusko Legebiltzarreko Hauteskundeak: Imanol Pradales (EAJ).

ATARIA IRRATIA

09:00. Eguraldia. Iker Ibarluzea.

10:00. Kirol tertulia.

12:30. Pasahitza. Albisteak.

18:00. Beste Munduko Musikak.

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa. Leyre Lejeune Maset. Euskal Herria kalea, 24. 943 67 32 74.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi 6 behe, 1. 943 67 5118.

EGURALDIA


IKER IBARLUZEA

Gaur. Goiz hotz baten ostean, egunean zehar eta bereziki goizen hodei

bakenen bat edo beste ikusiko bada ere, zeruan urdina nagusituko da. Haizeak ipar/ipar-ekialdetik joko du eta tenperaturak gorako bideari eutsiko dio, 15-18 graduan joko duelarik goia egunaren erdiko orduetan.

Bihar. Udaberri sasoiko giroa. Nahiz eta, goizean behe-laino pixka bat ager daitekeen, segituan jasoko du eta eguraldi eguzkitsua eta ederra nagusituko da. Tenperaturak nabarmen egingo du gora, 22-24 graduan joko duelarik goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



AUZOLANEAN TXUKUNDU DUTE

Asteburuan lanean aritu ziren gazteluarrak; udaletxeko ganbara prestatzen hasi, Kzguner berria egokitu, liburutegia txukundu eta eserlekuak atondu zituzten, besteak beste. Udalak auzolanaren garrantzia azpimarratu du eta eskerrak eman dizkie lan horiek egiten aritutako herritar guztiei. GAZTELUKO UDALA

ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...

Ataria.eus - 107.6 fm -



“Politikarekiko
konfidantza
berritzeko
aukera daukazu

Bozkatu

ehbildu